

Greba deialdiak Envasesen, hitzarmenaren defentsan

Laudion kokatutako lantegiaren enpresa-batzordea, LABek ordezkaturik, hitzarmen kolektibo berria negoziatzen ari da. Joan den urtarrilean bilerak hasi ondoren, batzordeak plataforma bat aurkeztu zuen, langileen eskaerak eta negoziazio-ildoak jasotzen zituen.

Hitzarmena negoziatzen hasi aurretik, plantillarekin batera gutxieneko batzuk ezarri zituzten negoziazio berri honetarako. Gutxieneko horien artean daude soldata-bermea eta antzintasuna nahiz lanbide-kategoria bezalako eskubideen bidez sortu den soldata-eskala bikoitza konpontzea. Hasieratik argi utzi genuen puntu horiek ezinbestekoak zirela etorkizuneko hitzarmen bat sinatzeko. Aitzitik, enpresak aldarrikapen horiek jasotzen ez zituen plataforma batekin erantzun zuen, eta, gainera, jada lortutako lizentzietan eta eskubide sozialetan "atzerapen garrantzitsuak" planteatzen zituen, LABek azaldu duenez.

Horregatik guztiatik, otsailaren 22rako eta 28rako eta martxoaren 2rako, 7rako eta 9rako 24 orduko lanuzteak deitu dituzte: "Enpresak une honetan planteatutako atzerapauso batzuk kendu baditu ere, oraindik ez dituzte bermatu eskatutako gutxienekoak".

Mezu argia helarazi nahi dute langileek negoziazio honi begira; izan ere, Envaseseko plantillak aurrera egin nahi du momentuz konponbiderik gabe arrastaka daramatzaten lan-baldintzak hobetuko dituzten alderdiak konpontzen. Aldi berean, azaldu dute ondare duina utzi nahi dietela etorkizunean Envasesen lanean hasten diren langile guztiei.

Euskal Herrian, 2023ko otsailaren 21ean